



Tolosaldeko udaletako, UEMA, AEK eta Aitzol euskaltegiak eta Galtzaundi Euskara Taldeko kideak Alegian atzo eginiko aurkezpenean. ENERITZ MAIZ

Euskaraz mintzatzera bultzatzeko ekimena

Mintzalaguna egitasmoan parte hartzera animatu dituzte euskara ikasten ari direnak nahiz horretan lagundu nahi dutenak; astean ordubetez elkartzen diren hainbat talde daude martxan eskualdean // 5

Ione Larrañaga eta Joseba Agirrezabalagak eskuratu dute beka

Alkizako Udalak ematen du Sormenaren Kabia beka, eta horri esker hiru asteko egonaldia egingo dute; abenduan aurkeztuko dute lana bi artistek // 3

Artisau eta Nekazal Azoka egingo dute Alegian igande goizean

Hamalagarrena izango da aurtengoa, eta hamalau postu egongo dira plazan; 11:00etan zabalduko ditu ateak eta 14:00ak arte egongo da irekita // 4

Otaegi eta Errazkin pentatloiko finalean, larunbatean

Larunbat gauean jokatu dute, Azpeitiko zezen plazan, 22:00etan hasita // 7

Elikagaiak prestatu eta merkaturatzeko gunea abian, urte amaieran

Irakin proiektuak eskainiko du zerbitzua Anoetako kiroldegian egokituko duten gunean; tokiko elikadura katea indartzea du helburu // 6

Alokairua ordaintzeko laguntza emango du Tolosako Udalak

18 eta 35 urte arteko tolosarrei 300 euro arterainoko diru laguntza emango die udalak; eskaerak bihartik aurrera egin ahalko dira // 2



Zumarditxikia proiektua aurkezteko bilera, astelehenean

Uztailean herritarrekin egindako bileran jasotako ekarpenak hartu dira kontuan; legealdi honetan lanekin hastea da asmoa

Erredakzioa

Zumarditxikia berreskuratu eta herritarren eskura jartzeko proiektua garatzeko lanean aritu da Tolosako Udala azken bi hilabeteetan, eta uztailean herritarrekin egin zen lehen saio irekian jaso ziren ekarpenak kontuan hartuta osatu den proiektua aurkezteko, bigarren saio irekia egingo da datorren astelehenean, irailaren 27an, 18:00etatik 20:00etara, kultur etxean. Herritar guztiei irekitako saioa izango da, eta parte hartze-ko beharrezkoa izango da aurrez izena ematea hirigintza@tolosa.eus helbidera mezu bat bidalita edo UDATERa deituta (010).

Zumarditxikia eremuak bere garaian izan zuen erabilera soziala berreskuratu nahi du udalak, espazio hori berriz ere herritarren eskura jartzeko. Udalak esan du 2019-2023 legealdiko proiekturik estrategikoen delako Zumarditxikikoa. «Izan ere, lehentasunezkoa da eremu hori herritarren eskura jartzea, ibaia herrian integratu eta Tolosak zein tolosarrek gaur egun dituzten beharretara egokituta herritar guztientzat aproposa izango den espazio publiko inklusibo bat sortzea».

Hala, Zumarditxikia herri erdigunean kokatutako natur eremu bat izatea da udalaren helburua: «aisiara bideratutako espazio bat, hirigintza eredu jasangarrien bidez gizarte ekin-tzak antolatzeak aukera emango duena». Ingurumena ere oso kontuan izan da proiektu honen garapenean, eta Tolosa Badabil Mugikortasun Plan berrian zehaztuta dauden hainbat helburrekin bat egiten du.

Aurreikuspenen arabera, datorren urte hasierarako eskurtean izango du udalak proiektu berria, eta behin proiektu horrek Ur Agentziaren oniritzia jasota jarriko da martxan. Udalak 2022an bertan jarriko du martxan obra egiteko lizitazioa, legealdi honetan bertan lanekin has- teko.

Alokairua ordaintzen lagunduko du Tolosako Udalak

Alokairuan bizi diren 18 eta 35 urte bitarteko tolosarrentzat 300 euro arterainoko diru laguntzak iragarri ditu; bihartik egin ahalko dute eskaera baldintzak betetzen dituztenek

Irati Saizar

Alokairu ordainketa errazteko diru laguntzak eskainiko ditu Tolosako Udalak, lehen aldiz. 18 eta 35 urte bitarteko tolosarrei zuzenduta egongo dira, eta alokairuaren %50 eta 300 euro arterainokoak izango dira. Eskaerak ostiralean hasi eta azaroaren 9a bitarte egin ahalko dira, aurrez aurre UDATERa edota telematikoki udalaren webgunean.

Laguntza hori etxebizitzarik jabetzan ez duten eta alokairuan bizi diren tolosarrei zuzenduta daudela azaldu du Xabier Balerdi Etxebizitza saileko zinegotzi arduradunak. Hain justu, 18 eta 35 urte bitarteko tolosarrei, eta behar bereziak dituzten herritar eta familiei ere, besteak beste, banandu eta familia gurasoka- karrei egongo dira zuzenduak. Diru laguntza jasotzeko eska- tzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte, besteak beste: Tolosan erroldatuta egotea, etxebizitza Tolosan kokatuta egotea edota alokatutako etxebi- zitzak gutxienezko bizigarritasun baldintzak betetzea.

Era berean, bizikidetzaren unitatearen diru sarrerak ere kontuan hartuko dira. Bizitza unitateko urteko diru sarrera gordinak gutxienez 3.000 eurokoak izango dira. Onuradun bakarria den kasuetan, urteko diru sarrera gordin- ekin ezingo dute 28.000 euroko kopurua gainditu, eta bi onuradun- edo gehiago badira, ezingo dute 35.000 euroko kopurua gainditu.

300 EURORA ARTE

Laguntzari dagokionez, alokai- ruaren %50, %40, %30 edota %20 ordainduko du udalak: diru sarrerak 15.000 eurora bitarteko- ak direnean %50 ordainduko du; sarrerak 15.001 eta 21.000 euro artekoak direnean %40; sarrerak 21.001 eta 30.000 euro artekoak direnean %30, eta 30.001 eta 35.000 euro arteko sarrerak di- tuztenei alokairuaren %20.



Olatz Peon alkatea eta Xabier Balerdi etxebizitza saileko zinegotzia, atzo. I.S.

Hori horrela, gehienez ere 250 euroko laguntza emango da hile- an, eta etxebizitza Alde Zaharre- an kokatuta badago, 300 euro- koa. «Neurri honekin Alde Zaha- rra biziberritu eta bertan hutsik dauden etxebizitzak merkatura- tzea lortu nahi da», esan du Ba- lerdik. Alokairu errentek gehie- nez ere 700 eurokoak izan behar- ko dute eta ez dute onartuko urtebete baino iraupen txikiagoa duen kontraturik.

Deialdi horretara, 40.000 eu- roko aurrekontua bideratu dute. Dena den, aurkeztutako eskae- ren arabera, 60.000 euroko au- rrekontu gehigarria onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu aldaketa onartu ondoren.

ETXEBIZITZA ESKUBIDEA

Olatz Peon Tolosako alkateak esan du etxebizitza «lan lerro ga- rrantzitsu bezain estrategikoa» dela, «tolosarrei etxebizitza es- kubidea bermatu eta alor hone- tan aukera berriak eskaintzea le- hentasunezkoa delako».

Zentzu horretan, gogorazai du etxebizitza hutsen eta etxebi- zitza beharren inguruko azterke- ta egin zela lehendabizi, «Tolos- ko errealitatea zehazki ezagutze- ko, besteak beste, etxebizitza hutsen egoera, horien kokapena

eta etxebizitza eskatzaileen pro- filak jakiteko», eta azterketaren ondorioak kontuan hartuta har- tu dituzte neurriak. Esan dute- nez, azterketa horretan, Tolosan 253 etxebizitza huts daudela jaso dute.

BIZITZA PROIEKTUA HERRIAN

Bi noranzkotan ari da udala la- nean, Peonen arabera: batetik, hirigintza garapena sustatzen, etxebizitza parkea handitzeko, eta bestetik, alokairua sustatzen, hutsik dauden etxebizitzak mer- katuratzeko eta gazteen eman- tzipazioa erraztu eta bultzatze- ko, «tolosar guztiek izan dezaten beren bizitza proiektua bertan garatzeko aukera».

Peonek gogoratu du Euskal Herria plazako gazteentzako bi- zitokiak bete direla dagoeneko eta Agaramunduko Babes Ofi- zialeko etxebizitzaren zozketa ere egin dela. Urtea amaitu aurretik, gainera, Alokabiderekin hitzar- mena berritzea aurreikusi du udalak, Bizigune programa sus- tatu eta etxebizitza hutsak bir- gaitzeko diru laguntza martxan jartzeko. «Visesarekin elkarlane- an, Amarotzen gizarte alokairu- ra bideratutako etxebizitza erai- kitzeko lanean ere bagabiltza», gaineratu du alkateak.

Mendekotasun egoeran daudenentzat egonaldi eskaera

Mendekotasuna duten pertsonen arduratzen direnek atsedean hartu ahal izateko zerbitzua da, eta izen ematea zabalik da

Erredakzioa

Urrian eta azaroan zaharren egoitzetan atsedenean aldi bate- ko egonaldiak eskatzeko epea za- balik dago mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen- tzat. Gipuzkoako Foru Aldun- diak eskaintzen duen zerbitzua da, mendekotasuna duten per- tsonez arduratzen direnek atse- den hartzeko helburuarekin.

Urrian eta azaroan, oraingoz, egonaldi luzeak bakarrik eskai- niko dira, hau da, sei gauetatik gorakoak, eta plaza kopurua mu- gatua da. Ordiziako San Jose egoitzan izango dira egonaldiak, eta plaza gutxi batzuk egongo dira Donostiako Txara 2 egoi- tzan.

Pandemiaren eraginez, plazak oso mugatuak direla esan dute, eta 40 plaza inguru daude lurral- de osorako. Hori horrela, lehen- tasuna izango dute behin betiko egoitza eskaera egin ez dutenek.

Zerbitzua eskatzeko, erabi- ltzaileek mendekotasun egoera egiaztatu beharko dute, eta aldi baterako egonaldirako gai direla adierazten duen RAI balorazioa eguneratuta egon behar da. Os- pitalizaziorik izan bada, RAI ba- lorazio berri bat eskatu beharko da, pertsonaren arreta beharrak egungo egoerara egokitze- ko.

Oro har, erabiltzaileak egonal- dietara COVID-19aren aurkako txertaketa osoarekin sar daite- zen sustatuko da. Txertatuta ez dauden pertsonen edo lehen do- sia bakarrik jaso dutenek, segur- tasun neurri gehigarriak hartu beharko dituzte.

ESKAERAK NOLA EGIN

Eskaerak Tolosako Udaleko Gi- zarte Zerbitzuen sailean egin be- har dira, eta gutxienez egonal- diaren hasiera baino 15 egun le- henago. Egonaldia hasi baino 15 egun lehenago adieraziko da pla- za lortu den edo ez. Bestalde, es- kaera egin ondoren uko egiteak ondorio ekonomikoak izan di- tzakeela azaldu dute, beraz, aha- lik eta azkarren abisatu behar da egonaldia behar ez bada.

Sormenaren Kabia beka Joseba Agirrezabalaga eta Ione Larrañagarentzat

Laugarren ekitaldian hamabost lan aurkeztu dituzte eta epaimahaiak literatura eta ilustrazioa, eta monotipia eta serigrafia uztartzen dituzten proposamenen alde egin du

Erredakzioa Alkiza

Sormenaren hariak ez du etenik, datozen asteetan Alkizan bertan izango baitira aurtengo bi sari-tuak. Ione Larrañaga ilustratzai-leak eta Joseba Agirrezabalaga artista plastikoak irabazi dute 2021eko Sormenaren Kabia beka. Udalaren eta herriko eragi-leen elkarlanari esker sortu zen Sormenaren Kabia beka 2018an. Ekimen horri esker, hainbat artistak naturagune paregabean hausnartu, esperientziak partekatu eta lan egiteko aukera izan dute azken urteotan. Aurtun honako hauek osatu dute epaimahai: Susana Cencillo García musikaria eta musika irakasleak; Mariasun Landa Etxebeste idazleak; Txiki Keixeta margolari eta eskultoreak; eta Koldobika Jaurregi Zinkunegi eskultoreak.

Epaimahaikideek Sormenaren Kabia edozein sortzailerentzako irekita dagoela azpimarratu zuten aurtengo edizioaren aurkezpenean. Gainera, dei berezia egin zieten hitza lanerako erreminta duten sortzaileei.

Hala, jasotako proposamenak denetarikoak izan dira, hamaika



Ione Larrañagak jaso du beka, Joseba Agirrezabalagarekin batera. ATARIA

gai mahai gaineratu dituzte hautagaiek: arkitektura, antzerkia, marrazketa, zeramika, bideogintza, argazkilaritza, literatura eta abar. Epaimahaiak, azkenik, literatura eta ilustrazioa, eta monotipia eta serigrafia uztartzen dituzten proiektuen aldeko hautua egin du.

Ione Larrañaga eta Joseba Agirrezabalagak hiru asteko egonaldia egingo dute Hernio mendia-
ren magalean. Naturako ele-

mentuak izango dira euren proiektuetako protagonistak. Abenduaren 17an jendaurrean aurkeztuko dute bekari esker burututako lana. Gainera, urtero legez, Unai Sorarrain bideogileak ikus-entzunezko bana egingo du sortzaileen lana ezagutzera emateko. Bekari loturako informazioa eskura egongo da *Fagus-alkiza.eus* atarian eta interesa duenak artisten lana bertatik bertara ezagutzeko aukera izango du.

Txiki eta Otaegi oroitzeko ekitaldia egingo dute Lizartzan

Sortuk deituta manifestazioa egingo dute irailaren 27an, 'Euskal Herria bihotzean, independentzia!' lelopean

Erredakzioa Lizartza

1975eko irailaren 27an Juan Paredes *Txiki*, Angel Otaegi eta FRAPeke Jose Luis Sanchez, Jose Humberto Baena eta Ramon Garcia Sanz militanteak fusilatu zituzten. Data berezia da eta Sortuk Txiki eta Otaegi oroitzeko ekitaldia eta manifestazioa egingo ditu. Lizartzan egin du hitzordua; 19:00etan manifestazioa egingo dute eta 19:30ean ekitaldia plazan. «Beste hainbat burkidek bezalaxe, Juanek eta Anjelek beren bizitzarekin ordaindu zuten Euskal Herria askatzeko eginiko ahalegina. Horri lotuta, pauso garrantzitsua emateko apustua egin du Sortuk, egun seinalatu hau gogora ekartzeko ekitaldi irekia antolatu baitugu», esan du.

Alderdiak esan du kezka handiz ikusten ari dela nola interes politiko zehatzen arabera memoria eta errelato alorrean «ikuspegi manipulatu eta desitxuratua» ezarri nahi den. «Azkenaldian, nabarmenena beharbada, diru publikoz finantzaturako Gasteizko Melitoniumaren

kasua dugu: Manzanas tortura-tzaile faxistari gorazarre egiten dioten bitartean, herri honen alde jardun duten hainbat biktima bazterrean uzten dituzte».

Sortuk esan du bere konpromisoa «pertsonek guztiak, eskubide guztiak, memoria guztiak» dela eta beraz, sufrimendu guztien oroimena aldarrikatzen duela, «batzuen zein besteena, inor bazterrean utzi gabe, soilik modu horretan eraiki baitaiteke herri honek hain beharrezko duen memoria partekatua eta elkarbizitza».

Irailaren 27ari lotutako ekitaldia urtero egiteko asmoa du, bere ustez aurrera egiteko oroitzea ezinbestekoa delako, «nora goazen jakiteko, nondik gatozen jakitea ere funtsezkoa zaigulako; herri honek behar-beharrezkoa duen elkarbizitza eraikitzen jarraitu nahi dugulako. Aurtengo zitarako hautatu dugun leloa *Euskal Herria bihotzean, independentzia!* da. Gure herriarekiko maitasunak ezinbesteko sugarra izaten segitzen duelako askapen borrokan aurrera egiteko. Eta independentzia, noski, Euskal Herriaren etorkizuna ezinbestean, hortik pasatzen delako eta horrek jarraitzen duelako izaten gure eskaintza euskal jendar-teari».

GUTUNA

Kapitalismoa planeta hiltzen ari da. Iraultza behar dugu!

Alderik alde, planetako lurralde guztietan geroz eta nabarmenagoa da sistema kapitalista eragiten ari den ingurumen suntsiketa. Greziako edota Kaliforniako sute izugarriak, Kanadan eta mendebaldeko AEBn egin dituen bero boladak, lurralde artikoaren urtzea, Murtzian hildako tonaka arrainak, birusen eta pandemien hedapena... erritmo geldiezinean aurrera doan suntsiketa klimatikoaren kronika dira. Birusen eta pandemien ugaritzea ere, COVID-19rena kasu, biodibertsitatearen suntsi-

ketarekin erabat lotuta dago. NBERen Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko panelaren (IPPC) azken txostena izugarria da: «Kliman ikusitako aldaketa askok ez dute aurrekaririk milaka urtetan, ehunka mila urtetan ez bada». Hala ere, klima aldaketa ez da inondik ere jainkoen zigorra. Ekosistemaren gaineko ekoizpen kapitalistaren jardura suntsitzailearen eta merkatu ekonomia deritzonaren sostengu diren gobernuen konplizitatearen emaitza da.

Enpresa handiek eta oligopolioek planeta suntsitzeko duten erantzukizunari buruzko datuak ezin dira gehiago ezkutatu. Egoera honen erruduna ez da «gizateria» orokorrean, kapitalistak

dira. Gobernu guztiek, izan eskuinekoak edo sozialdemokratik, behin eta berriz esaten dute klima aldaketa geldiarazteko neurriak hartzen ari direla. Gezurra!

Klima gailurrek porrot egin dute, izan ere, planeta suntsituz poltsikoak betetzen dituzten horiek antolatu eta kontrolatzen baitituzte. EAJk berak sarri asko hitz egiten digu ekologiaren defentsaz, AHTa eta erraustegia inposatzen dituen bitartean eta ehunka kaleratze defendatzen duenean Tubacexen eta hainbat lantegietan Ertzaintzaren bortizkeria erabiliz. Josu Jon Imaz bezalako politikari jeltzaleen zerrenda luzea dago multinazional eta enpresa kutsatzaileen bu-

ruzagitzan. Elektrizitate, gas eta petrolio enpresen, bankuen eta ehungintza eta elikagaien enpresa handien adierazpen eta propaganda ekologistak erabateko iruzurra dira. «Berdea» modan dago iragarkietan, baina iritzi publikoa engainatzeko trikima-lu lotsagabe bat besterik ez da.

Kapitalismo berdea benetako iruzurra da eta porrot egin du. Gobernuak eta enpresek bizi dugun hondamendia geldiarazteko egiten duten ekintzan konfiantza izatea akatsa da.

Gure indarretan eta borrokatzeko eta mobilizatze gaitasunean bakarrik oinarritu gaitzek. Horregatik, Ikasle Sindikatuak irailaren 24rako nazioarteko ikasle greba klimatikora dei egin

du, beste borroka egun aitzindari bat bihurtzeko.

Zapalkuntza kapitalistari amaiera emanez soilik, multinazional handiak herritarren kontrol demokratikoaren pean nazionalizatuz, planifikatu daiteke ekonomia premia sozialei erantzuteko, osasuna eta hezkuntza publikoa, guztiontzako etxebizitza eskuragarria eta duina, prekaritatek eta miseriako soldatarik gabeko enplegua eta ingurumena errespetatzen dela bermatuz. Gizartearen eraldaketa sozialistarekin bakarrik lortuko dugu ingurumena suntsipen segurutik babestea eta justizia soziala eta klimatikoa bermatzea.

Iker Otermin Ezker Iraultzailea

Hamalau postuko azoka

XIV. Artisau eta Nekazal Azoka egingo dute igandean, Alegian; plazan jarriko dituzte postuak, 11:00etan hasi eta 14:00ak arte

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Iraila azoken hilabetea izan ohi da, nahiz eta pandemia egoerak azokak ere dantzan jarri dituen. Ohitura zaharra berreskuratuz, hamalaugarren urtez antolatu du Alegiako Udalak nekazari eta artisau azoka. Aurrekoetan egin izan zuten moduan, hileko azken iganderako antolatu dute, eta hilaren 26an, 11:00etan zabalduko dute azokarako atea.

Iaz, koronabirusa tarteko, Alegian ere ez zuten azokarik antolatu. Aurten, ordea, azken unean bada ere, Alegiako Udaleko Kultura batzordea azoka egitera animatu da.

Herritarrei eta herriaren ingurukoei ematen diete Alegiako azokan postua jartzeko aukera, eta XIV. Artisau eta Nekazal Azoka, hamalau postuz osatuko dute. Eguraldiari begira egon dira kokalekua zehazteko, eta iragarpenak eguraldi ona eman duela eta, plazan egingo dute. XIV. Artisau eta Nekazal Azokari 11:00etan emango diote hasiera eta 14:00etara bitartean izango du jendeak postuz postu ibiltzeko aukera.

Nola ez, azoka guztietan bezala, erakusgai dauden produktuak ikusteaz gain, erosteko aukera ere izango dute bertaratzen direnek. Hamalau postu horie-

tan askotariko jatekoak izango dira, eta beste hainbat postu artisautzari lotutakoak jarriko dituzte.

SEGURTASUN NEURRIAK

Dagoeneko gizarteak bere eginak ditu koronabirusa tarteko hartu beharreko segurtasun neurriak, baina Alegiako Udalak beste behin gogorarazi egin du: «Azokara hurbiltzeko asmoa dutenei antolakuntzak ezarritako sarrera eta irteera puntuak errespetatzeko eskatzen zaie». Plazara sartu eta ateratzeko puntu ezberdinak jarri dituzte, eta jende pilaketak ekidin nahi dituzte segurtasun neurriak hartuta.



Duela bi urte egin zen azokako une bat. IRATIURDALLETA



«Daukadanetik eramaten dut, ez dut azokarako ezer berezirik egiten»

JUAN INAZIO REKONDO ETXARRI
EKOIZLEA

E. Maiz Alegia

Alegiako Etxarraga Berri baserrian bizi da Juan Inazio Rekondo alegiarra. Azken unean bada ere, aurten ere azokan postua jartzera animatu da. Ez da baserritik bizi, baina baserrian lan

egiten du. Etxerako egiten du baratzea, eta dituen fruta zuhaitzek emanda fruituekin joango da igandeko azokara. Herritarrei gonbita luzatu die plazatik buelta egiteko eskatuz.

Alegiako azokan aurten ere postua jarriko duzu.

Bai, ditudan gauza hondarrekin jartzeko asmoa dut.

Azoka egingo zutenaren esperantzarik bazenuen?

Ez, egia esan ez nuen espero egingo zutenik. Iaz ez zuten egin, eta aurtengorako duda zen, eta ez dugu gauza asko prestatu. Joan nahi ote dugun galdetu digute, eta joango gara.

Azoka egin izan denetik jarri izan duzu postua?

Ez. Ni 2014an hasi nintzen, eta beraiek jada 14 urte daramatzate azoka egiten. Besteak ikusten nituen, eta gero, beranduago animatu nintzen.

Nolatan animatu zinen postua jartzera?

Ikusten nuelako Alegian jada baserritar asko ez zegoela. Gutxitzen ari ziren barazkien postuak, horrela azokan sartzera animatu nintzen.

Zein postu mota da zurea?

Nik etxeko barazkiak jartzen ditut. Daukadana, eta gero eduki dezakedan fruta eramaten dut. Aurrekoan, esaterako, mahatsa eramane nuen, eta aurten ere eramateko asmoa dut. Etxean dudana da, ez dut azokarako ezer berezirik egiten, daukadanetik eramaten dut.

Baratzean aritzen zara, beraz.

Ez. Nik baratzea etxerako egiten dut, ez dut egiten saltzeko. Herrian urtean behin izaten denez azoka aprobeitxatu egiten dut, eta soberan dagoen hori eramaten dut.

Jendeak erosten ditu bertako produktuak?

Bai. Gustura gainera. Nik uste dut jendea oso gustura etortzen dela, eta nongoa den ikusita, eta hemengoak izatearekin nik uste dut jendea asko animatzen dela erostera.

«Ni bereziki ez naiz gehiegi saiatzzen, natural-natural, hartu eta eraman egiten ditut»

Igandean zer eramango duzun plazara esaterik bai?

Ziaterbak, kuia, kalabaza, piperrak, Ibarrako piperrak,... Fruta aldetik, sagarrak, udareak, mahatsa, eta arrautzak ere bai,... Eta parean beste zerbait suertatzen bada, hori ere bai.

Urte ona izan da aurtengoa?

Frutarentzako bai, eta baratzerako ere ez da hain txarra izan.

Eskertzen du jendeak postua jartzea?

Nik uste dut baietz. Niri jendea

harrituta geratzen zait, eta gustua ematen duela, eta saiatzzen garela lanean eta komentatu izan didate. Eta baserrian bizi eta aukera izanda, eta gustatuz gero, aritu egiten zara pixka bat lanean.

Ez da zure lana, baina postuan saltzaile moduan aritzea nola-koa da?

Ez da nire gustuko lana. Jende askorekin hitz egitea gustatzen zait, eta oso irekia naiz, baina ez da nire lana hori. Egun horretan aritzen gara, eta alabak laguntzen dit pixka bat, baina ez da gustuko lana. Kanpotik egotea gehiago gustatzen zait.

Zazpigarren urtez jarriko duzu postua. Azokan urte horietan aldaketarik antzeman duzu?

Aldaketa eman da. Gero eta jende gutxiago animatzen dela uste dut postua jartzera. Lan handia egin behar da. Aurreko egunetatik hasi behar duzu gauzak preparamen eta txukuntzen, eta uste dut jende asko atzeratu dela lan handia duelako. Ni bereziki ez naiz gehiegi saiatzzen, natural-natural, hartu eta eraman egiten ditut. Urte batzuk atzera, batzuk izugarrizko lanak hartzen zituzten postua dotore jartzen.



Alegian egin zuten, atzo, Mintzalaguna egitasmoaren aurkezpena; martxan zeuden taldeei eutsi eta berriak sortu nahi dituzte. E. MAIZ

Euskara ez praktikatzeko, ez dago aitzakiarik eskualdean

Mintzalaguna egitasmoa aurkeztu dute, eta izena emateko epea zabalik da; astero euskara praktikatzeko duten sareak ehuntzen jarraitzea dute helburu

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Duela hamabi urtetik eskualdean hainbat eragilek bultzatu eta babesten duten Mintzalaguna egitasmoan izena emateko epea zabaldu dute. Euskara maila hobetu nahi dutenek edota euskaraz gozatu nahi dutenek ematen dute izena, eta horiei dei eginez aurkeztu dute *Mintzapoz*a lelopean. Eskualdeko hainbat udalek, UEMAk, AEK eta Aitzol euskaltegiek eta Galtzaundi Euskara Taldeak babesten dute Mintzalaguna.

Egitasmoa ez da soilik euskara

ikasten ari direnentzat. Mintzalaguna euskaraz hitz egin ohi duten pertsonak euskaraz egin nahi duten pertsonekin euskaraz aritzeko elkartzeko dituen programa da.

Parte hartzaileen artean talde txikiak egiten dituzte bospasei lagunekin, eta astean behin, ordu batez beraien aisialdi garaian elkartzeko dira. «Paseoan, kafetegian, parkean... euskaraz aritzeko, azken batean, euskaraz bizitzeko», adierazi du Eider Zubillaga Alegiako zinegotziak. «Aukera paregabea, beraz, euskaraz gehiago aritu nahi dute-

nentzat, edo dugunontzat», gaineratu du.

Azken bi urteak eta gero, «ikasurte berri hau bereziki bizi, garrantzitsu, gogotsu dator. Azken bi urteetan ezinezkoa izan baita gure jarduna bere horretan, gure modu naturalean burutzea, baina hartutako konpromisoari gogor eutsi diogu», azpimarratu du Idoia Lahidalga Galzaundiko ordezkariak.

Euskal Herrian 6.800 pertsona, eta Tolosaldean 75 pertsona astero-astero bildu izan direla ekarri dute gogora. *Mintzapoz*a elkarrekin praktikatzeko gogoz

daudela gaineratu du Lahidalgak. Astero elkarteak «mintzapoz» sortzen diela esan du, baina baita «euskaraz lasai eta eroso aritzeko aukera izateak, akatsak egiteko beldurrik gabe edo euskara praktikatu nahi dugunok astero elkartzeko prest dagoen bidelagun bat izateak» ere.

EUSKALDUN GUZTIEI DEIA

Parte hartzeko bi bide daudela azaldu dute, hau da, euskara praktikatzeko (bidelaria) eta euskara praktikatzeko lagunduz (bidelaguna). Mintzalagun bihurtzeko baldintza bakarrak, euska-

MINTZA TONBOLA

Irailak 25, larunbata

11:00-13:30. Mintzalaguna egitasmoari bultzada bat emateko aukera egongo da, Tolosako San Frantzisko eliza parean jarriko duten tonbolan. Guztira 70 bat sari eta sari gabeko 126 txartel izango dira. Sarien artean: Nekatur bonua, bi pertsonarentzako bi gaueko egonaldia eta gosariarekin; 19 telazko poltsa; 19 bolaluma; 6 katilu; 6 termo eta 19 koaderno.

raz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez elkartzeko prest egotea direla azpimarratu dute.

*Mintzapoz*a «denok» praktikatu dezakegula ere aipatu du Zubillagak: «Helduek, gazteek, berriro, lotsatiek, kirola egitea gustuko ez dutenek, antzerkizaleek, gurasoak... gaitasuna izanez gero». Eta guztien eskura dagoela *Mintzapoz*a.

Izen ematea doakoa da, eta ikasturte osoan egongo da irekita. Mintzalagunean parte hartu nahi dutenek herriko udaletxera jo dezakete, edota Galtzaundi Euskara Taldearen egoitzara joan beharko dute izena ematera. Bestetik, *online* ere eman daiteke izena labur.eus/tolosalde_mintzalaguna web orrian.

Tolosaldean, egun, hainbat herritan dituzte Mintzalagun taldeak: Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Anoeta, Ibarra, Ikaztegieta, Lizartza, Irura, Tolosa eta Zizurkilena. Egitasmoa herri gehiagotara zabaltzea dute helburu, mintzalagun talde berriak sortuz.

Aurretik martxan zizutzen talde askok eta askok jarraitu egingo dute, eta astero euskara praktikatzeko elkartzeko diren sareak ehuntzen jarraituko dutela argitu dute. Bidelariak eta bidelagunak astero biltzen hasiko dira: «Elkarrekin esperientzia aberasgarriak bizitzeko eta mintzapraktika egiteko bilduko dira, elkar zainduz eta erantzukizunez».



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako bina sarrera



mendexpark.com
688 85 62 83
MENDEXA
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera



aquariumss.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 SANTANA ESNEKIAK

Fruitu gorri, marrubi eta yogur naturalez osaturiko opari sorta! Baserritik zuzenean % 100 naturalak!



685 79 61 74
Kortezubi
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako asteazken, ostegun eta ostiral goizean. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.



Irakin proiektuko arduradun Iñigo Estanga, kiroldegiaaren albo batean egokituko den espazioaren atarian, atzo. J.M.

Irakin proiektuak irabazi du kiroldegiko sukaldeko lehiaketa

Elikagaiak prestatzeko, aurkezteko eta merkaturatzeko gunea kudeatuko du Iñigo Estanga buru duen taldeak Anoetan; urte amaierarako martxan izango da

Jon Miranda Anoeta

Anoetako Udalak Abraham Olano kiroldegian egokitu nahi duen espazioaren kudeaketa lehiaketa publiko bidez esleitu du eta Iñigo Estanga Zubillagaren (Donostia, 1983) Irakin proiektua izan da onuraduna. Urte amaierarako sukaldeak martxan izatea espero dute.

«Anoetan bizi gara eta egitasmo honekin gure ekarpena egin nahi diogu herriari, bertako parte aktibo izan nahi dugu. Ekoizle eta

kontsumitzaileen arteko zubi lana eginez irudikatzen dugu gure burua eta heziketa prozesuan elikadura osasuntsuari atea zabaltzeko nahi diogu», esan du Iñigo Estangak. Udalak ekonomia zirkularraren eta ekonomia ekologikoaren oinarriak bultzatzeko konpromisoa hartua du aspalditik eta praktika hori indartzen ari da azken aldian hainbat arlotan. Pello Estanga alkatearen iritzian, erronka horri erantzutera dator kiroldegian egokituko duten espazioa: «2018tik tokiko elikadura

katea indartzeko kanpaina dugu martxan, tokiko elikadura katea indartzeko eta bertako elikagaiak ekoizteko, merkaturatu eta kontsumitzeko. Azken urteetako gizartearen bilakaerak itzalean eta gainbeheran jarri ditu tokiko elikagaien ekoizpena eta baita herriko merkataritza txikia ere».

Bertakoa Bertatik kanpainarekin bertako ekonomia bultzatu, paisaiari eutsi, ingurumena zaindu, herritarren osasuna hobetu eta euskal kultura zein nortasuna indartu nahi dituzte. «Produktu

bakoitzaren atzean dauden pertsonen duintasuna bermatzeko modua da», esan du alkateak.

Helburu horiek praktikara eramateko tresna izango da Abraham Olano kiroldegian egokituko duten gunea, elikagaiak prestatzeko, aurkezteko eta merkaturatzeko espazioa. Iñigo Estangak «laborategi» gisa irudikatu du proiektua: «Elikagaiak bildu eta eraldatzeko tokia izango da. Ekoizleek euren produktuak saltzeko txoko bat izango dute eta sukaldean guk elikagai horiek

eraldatuko eta salgai jarriko ditugu. Bertan ekoiztitakoa erregistratu, ontziratu eta banatzea da gure asmoa».

BALIOETAN OINARRITUTA

«Jaten duguna gara» esaldia ibili du ahotan Iñigo Estangak. «Oso argi dugu elikadurak gure ongizatean, osasunean eta heziketa prozesuan garrantzia duela». Elikadura, osasuna eta heziketa sortzen duten triangelua da Irakin proiektuaren oinarria, eta horretarako, ekoizle, kontsumitzaile eta eraldatzaileen arteko elkarlana da proposatzen dutena.

Udalak helburu horiek denak gauzatzeko baldintza tekniko zehatzak jarri ditu. Urte guztian zehar erabiltzen diren produktuen %60, 150 kilometroko erradioan ekoizita izan beharko du. Helburua ehuneko hori handitzen joatea da. Bestalde, urte guztian zehar erabiltzen diren produktuen %10 eskualdeko elikagaiak izango dira eta lehengai bat baino gehiago duten elaborazioetan, gutxienez erabilitako osagaien erdia baino gehiago 150 kilometroko erradioan ekoiztitakoa izan beharko da.

Anoetako alkateak azpimarratu duenez, zeharkako onurak ere ekarriko dizkio espazioak herriari, «bertako ekonomia dibertsifikatu eta lan aukera berriak sortuko baititu». Iñigo Estangak herrian bertan eta familian kudeatu nahi du proiektua: «Urte askotako bilaketa prozesuan jasotako esperientzia, sentsazio eta ilusioei forma eman eta uste dut Irakin-en islatu dela guztia. Kezka, beldur eta oztupo asko gainditu ditugu eta orain apustua egin nahi dugu. Ogibide deitzen zaion hori bizi-molde bihurtu nahi dugu».

Espazioa egokitzeko lanak hasiko ditu aurki udalak eta urte amaierarako jendearen bistara egongo den sukalde eta topaleku hau martxan egotea espero dute arduradunek.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Iritsi da egun erabakigarria

Joseba Otaegi zizurkildarrak eta Iñaki Errazkin tolosarrak larunbat gauean egingo den IV. Mahala Euskal Pentatloi Sariaren finalean parte hartuko dute

Imanol Garcia Landa

Larunbat gauean erabakiko da IV. Mahala Euskal Pentatloi Sariaren irabazlea. Azpeitiko zezen plazan egingo dute finala, 22:00etan hasita. Sei kirolari izango dira lehia eta horietatik bi eskualdekoak: Joseba Otaegi zizurkildarra eta Iñaki Errazkin tolosarra. Txanda berean ariko dira, gizonetzkoen bigarrenengoan, jardunaldiko hirugarrena izango dute. Beraiekin batera faborito nagusia ariko da, Andoni Iruretagoiena *Izeta VI.a*. Gizonetzkoen lehen txandan, jardunaldiko bigarrenengoan, Aritz Irazabal, Julen Gabirondo eta Kepa Peñagarikano lehiatuko dira.

Finalerdian lortu zuten sei pentatloilariak finalerako txartela, baina orduan egindako lanean alderatuta, larunbatean lan gogorragoak izango dituzte: harriari 25 jasoaldi eman, giza proban bi plaza, aizkoran 3 kanaerdiko ebaki, txingekin 6 plaza egin, eta korrika 30 itzuli egin, hau da, 3 kilometro.

Otaegik finalerako sailkatzeko kanporaketan bigarren denbora onena egin zuen, baina orduan egindakoak ez duela zerikusirik finalean egingo den lanarekin nabarmendu du: «Beste proba bat da. Lehen ere egindakoak gara hori, eta prestaketa ere finalera begira egin dugu. Izan ere, finalera pasatzeko aukera ikusiz



Joseba Otaegi aizkoran eta Iñaki Errazkin giza proban, finalerdian. MAILO OIARZABAL/UROLA KOSTAKO HITZA

gero, finala bera prestatu beharra dago, kanporaketatik ez duelako denborarik ematen ezertarako. Uste dut ondo prestatuta iristen garela, eta lana ondo egiteko moduan izango garela». Euskal Pentatloiko lehen finalean izan zen Otaegi eta, beraz, ezagutzen du egin beharreko lana. Faborito *Izeta VI.a* jarri du eta Gabirondo ere kontuan hartu beharrekoa izango dela dio.

Errazkinentzat bigarren finala izango da, iazkoan parte hartu ondoren. Azken egunetan entrenamendu txiki batzuk egingo dituela esan du, eta prest dagoela finalari aurre egiteko. Bigarren txandan ariko direnek abantaila txiki bat izango dutela dio: «Beti balio du erreferentzia izateko.

Korrika justu bazabiltza, pixka bat gehiago estutzeko balio dezake. Abantaila da aurrekoen denborak jakitea». Bere txandan ariko diren *Izeta VI.a* eta Otaegi besteak baino kokka bat gorago daudela dio: «Ni behintzat burua hotz aterako naiz, eta ezer galtzekorik gabe. Ni nire denborak egitera joango naiz, denbora guztian kontrolatuz». Otaegirekin bat eginez, finalerdietako lanak finalekoarekin zerikusirik ez duela dio: «Finala beste kupel bateko sagardoa da. Kanporaketan dena emanda ateratzen zara, baina finalean indarrak dosifikatu egin behar dira».

Finala ikusteko sarrerak salgai daude Tolosako Kantabriko tabernan eta Azpeitiko Mendizabal erretegian. 16 urte eta hortik beherakoek doan izango dute sarrera, baina kontuan izan behar da eserleku kopuru orokorra mugatua izango dela.

bal erretegian. 16 urte eta hortik beherakoek doan izango dute sarrera, baina kontuan izan behar da eserleku kopuru orokorra mugatua izango dela.

I. EMAKUMEZKOEN TXAPELKETA
Lehenengo aldiz emakumeen banakako finala ere egingo da aurtun. Hiru kirolarik parte hartuko dute: Karmele Gisasola *Zelai III.a*, Lucia Orbe eta Garazi Arruti. Harriari 15 jasoaldi eman go dizkiote, giza proban plaza bat egingo dute, aizkoran 36 ontzako bi enbor moztuko dituzte, txingekin lau plaza, eta korrika 15 buelta emango dituzte, 1,5 kilometro eginez. Emakumezkoen finala lehenengo txandan jokatuko da.

Merezitako lehen garaipena



Aulkitik

Patricia Larrarte

Tolosa CF, 1. Maila Nazionalea

Asteburu honetan Santanderrera joatea tokatzen zitzagun. Guretzat leku berria eta, beraz, aurkaria ere hala izan zen. Bi ordu eta erdiko bidaiaren ondoren, gure helmugara iritsi ginen, gure jokoak erakusteko eta partida irabazteko gogoz beteta.

Aurreko norgehiagokak jokatu ondorengo sentsazioak kontuan izanda, bagenekien hobetzeko eta hiru puntuak irabazteko helburua betetzeko gai ginela, eta hala izan zen. Partida hasi eta lehenengo goletik azkenekora egoeraren kontrola izan genuen hasieratik bukaerara, nahiz eta ezustekoren bat edo beste egon aurkariaren jokaldi batzuetan.

Helburua lortu genuen: alde batetik, ez genuen golik jaso, eta, bestetik golak sartzea eta partida irabaztea lortu genuen. Partida asko geratzen zaizkigu aurretik, baina ziur nago talde honek borroka egingo duela horietako bakoitza irabazteko. Orain, lanean jarraitu behar dugu, talde gisa hobetuz eta helburuak beti kontuan hartuta. Eta Ainhoak lehenengoan esan zuen bezala, aupa Tolosa trakatra!

Tolosa Futbol Klubak ezohiko batzarra egingo du urriaren 7an

Erredakzioa Tolosa

Tolosa Futbol Klubak ezohiko batzarrerako deia egin du. Batzarra urriaren 7an, osteguna, egingo da, 20:00etan, lehen deialdian, eta 20:30ean, bigarren eta azken deialdian. Tolosako kultur etxearen areto nagusian elkartuko dira eta bertan gai bakarra izango da, zuzendaritza batzordearen hautaketa.

Balio handiko puntua lortu du Lauburuk lehen partidari

Erredakzioa Ibarra

Larunbatekoa egun handia izan zen familia more guztientzat. Zalantza betetako urte zail baten ondoren, 2. B mailako taldeak 2021-2022 denboraldi ilusionagarri bati hasiera eman zion Belabietan, beti taularen goialdeko postuetan borrokatzen duen Otxartaberen bisita jasoz. Hiruna berdindu zuten, etxekoek balio handiko puntua eskuratuz.

Ibartarrak jarri ziren aurretik markagailuan, baina bilbotarrek berdinketa lortu zuten, eta bana-koarekin iritsi ziren atsedenaldira. Beste bi aldiz aurreratu zen Lauburu, eta 3-2koarekin garaipena lortzeko zorian izan ziren, baina aurkariak berdinketa lortu zuten partida bukatzeko 30 segundo falta zirela.

Moreen estreinaldi ona eta etxean geratzen den lehen puntua. Horrelako aurkari batekin puntu bat lortzeak balio handia

dauka, are gehiago, Euskal Ligako jokalariek jubenilen parte hartzea kontuan hartzen bada. Partidaren amaieran Jota Agirre entrenatzaileak azaldu zuenez, partida oso parekatua izan zen eta eraikuntzan sufritu zuten gehien. «Otxartabe beti da faboritoetako bat eta gure helburua galera handirik ez izatea zen. Pena izan da garaipena lortu ez izana». Halaber, taldea «lan handia eskatzen duen etapa berri batean» dagoela azaldu zuen.

BILLABONA FKE	
Arratzain futbol zelaia	
OHOREZKO INFANTIL MAILA Larunbata 25, 10:00etan BILLABONA F.K.E. DANENA K.E.	1. KADETE MAILA Larunbata 25, 11:45ean BILLABONA F.K.E. EUSKALDUNA S.D.
OHOREZKO KADETE MAILA Larunbata 25, 16:00etan BILLABONA F.K.E. AIZKORRI F.T.	PREFERENTE MAILA Igandea 26, 12:00etan BILLABONA F.K.E. ZUMAIKOA F.T.
Billabona Fke	



OSTEGUNA, 2021EKO IRAILAK 23
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



KIROL-PISTA ERABILGARRI

Amaitu dituzte Irurako erabilera anitzeko kirol-pista egiteko lanak. Sasoi Eraikuntzak S.L. enpresak egin ditu lanak eta 146.277 euroko aurrekontua izan dute. Eusko Jaurlaritzak 57.385 euroko laguntza eman dio Irurako Udalari, Erein landa eremuak sustatzeko eta garatzeko programaren barruan. Skate pista zegoen tokian egin dute, eta espaloia ondoan bidegorri zati bat ere jarri dute. Irurarrek erabiltzeko moduan da, beraz, azpiegitura berria. JON MIRANDA

OSTEGUNA 23

AGENDA

Deialdiak

Amezketak. Gaztelekua ezagutzeko ate irekiak, gazteei eta beren gurasoei begira. 17:00etatik 17:30era DBH 1ekoentzat, eta 18:00etatik 18:30era, DBH2koentzat.

Amezketak. Amezketako adinduentzat bilera, zahartzaroaren inguruko ekimen bat sustatzeko. 19:00etan, kultur etxean.

Tolosa. Alzheimerren inguruko hitzaldia, 18:00etan, kultur etxean.

Tolosa. Galtzaundiren irakurle taldean Bernardo Atxagaren *Etxeak eta hilobiak* aztertuko dute, kultur etxean, 19:00etan.

Zinema

Tolosa. *La mujer que escapo* filma Leidor aretoan, 19:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina: eguraldiaren iragarpena, prentsari begirada, eskualdeko albisteak, kolaboratzaileen tar-teak...

15:00. Entzuteko jaioak. Musika.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

20:00. Musikasi. Musika klasikoa.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

09:30. Gaurkoan Tolosalde

15:00. Elkarriketap

17:30. Gaurkoan Tolosalde

21:30. Gaurkoan Tolosalde

22:00. Pintxo-Pote

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Ben-goetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Eguraldi polita. Goizean behe-lainoa agertuko bada ere, eguzkiak laster xurgatuko du eta eguraldi ederra geratuko zaigu. Hodei batzuk agertuko badira ere, zeruan urdina nagusituko da. Azken orduetan, hodeiak ugaritu egingo dira, baina ateri eutsiko dio. Haizeak ipar/ipar-ekialdetik joko du eta tenperatura antzeko balioetan mugituko da, 19-20 graduan joz goia.

Bihar. Goizean hodeiren bat edo beste agertuko bada ere, zeruan urdina nagusituko da eta eguraldi eguzkitsua izango dugu. Arratsaldean barnealdetik hodeiak ugarituko dira, zerua estalirik utziko dute eta azken orduetan euri pixka bat izango dugu. Hala ere, egunaren gehiengan ateri eutsiko dio. Haizeak ekialdetik joko du eta tenperatura igo egingo da 22-23 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus - 107.6 fm -



Udako
argazki lehiaketa

BOZKATU GUSTUKOENA
ATARIA.EUS-EN



nekatur
'Opari Bonu Orlegia'

Bi pertsonarentzako bi gaueko egonaldia:
logela eta gosariekin, edo apartamentuan
Nekatur Nekazalturismo Elkartearen eskutik
www.nekatur.net - 943 32 70 90

Epaimahaiaren saria



bi pertsonarentzako otordu bat
Bidania-Golatzko Bailara jatetxean
iriartejauregia.com - Eliza Bailara, 8.
Bidania-Golatz. - 943681234

ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



Lixoneren bi saski zozkatuko dira.

cosmenticalixone.com
Ibaiondo induristigunea, 11. Aduna. - 943691280
atarikide-en saria